

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onespena ematea zerga ordenantzak 2025erako aldatzeari

Udalbatzak, 2024ko urriaren 17an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea honako ordenantza hauek aldatzeari:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen zerga ordenantza.
- Zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen zerga ordenantza.

Horiek horrela, eta bat etorri Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.1 eta 19.2 artikuluetan ezarritakoarekin, aipatutako ordenantzak jendaurrean egongo dira hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Ohartarazten da erabakia behin betiko onetsizat emango dela, baldin eta epea igaro eta erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Arespalditzan, 2024ko urriaren 21ean

Alkate-lehendakaria
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA